Javi Soto
***Lentejas,*** 2004.
De la serie *Todo el arte del mundo* seriekoa, 2004-2006



Zigor Barayazarra
***Urban Furnitures: Trees,***
2005-2006





Héctor Orruño
***Tres poderes,*** 2006

## jarduerak / actividades

**Artistekin solasean / Conversaciones con:**
David G. Torres
Arte kritikoa eta komisario beregaina / Comisario independiente y crítico de arte
Irailaren 14an, osteguna, 20:00etan / Jueves, 14 de septiembre, 20:00 h.

**Informazio gehiago / Más información en: 945 20 90 20**

Eskerrak / Agradecimientos:
Arantzazu Bolumburu, Olatz Irijalba eta/y Garbiñe Ruiz




Komisarioak / Comisarios: David G. Torres eta/y Enrique Martinez Goikoetxea
Koordinazioa / Coordinación: Yolanda de Egoscozabal
Garraioa / Transporte: Arteka, Une eta Gestioa, S.L.
Aseguruak / Seguros: Aón Gil y Carvajal
Muntaketa / Montaje: Arteka, Une eta Gestioa, S.L.



# INGURU HURBILAK 2006
# ENTORNOS PRÓXIMOS 2006

Artium
Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa
Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo

Actividad enmarcada en
ProgrAmárica
Barruan sartutako ekintza

Francia, 24 -01002- Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 20 90 20 / 945 20 90 00 Fax/a: 945 20 90 49 museo@artium.org

**Bisita ordutegia / Horario de visitas:**
11:00etatik - 20:00etara etenik gabe / 11:00 h. a 20:00 h. ininterrumpido.
Ostiral eta larunbatetan, 20:30 arte / Viernes y sábados hasta las 20:30 h.
Jaiegun ez diren astelehenetan itxita / Lunes no festivos cerrado
Txartel-lehiatila, Museoa itxi baino ordu erdi lehenago itxiko da / La taquilla cierra media hora antes del cierre del Museo.
**Liburutegi eta Dokumentazio Zentroa / Biblioteca y Centro de Documentación**
Ikus ordutegiak / Consultar horarios: Tel.: 945 20 90 20, www.artium.org

**Tarifak/Tarifas:**
1 Normala / Normal: 4,5 €
2 Taldeak / Grupos: 4 € (15 lagunetik gorako taldeentzat/aplicable a partir de 15 personas).
3 Bisitaldi gidatuak (taldeak) / Visitas con guía (grupo): 73 €
4 Doakoa / Gratuita ( Kide Elkartuentzat, babes erakundeentzat eta 14 urtez beherakoentzat / Miembros Asociados, entidades de patrocinio y menores de 14 años).
5 “Asteazkenetan, ZUK NAHI DUZUNA” / “Los Miércoles TU DECIDES": mínimo € 0,01 gutxienez
6 Murriztua / Reducida: 2,2 € (ikasleentzat, 14 urtez gorako eta 18 urtez beherako gazteentzat, 65 urtez gorakoentzat eta/edo jubilatuentzat eta langabetuentzat / aplicable a estudiantes, jóvenes mayores de 14 años y menores de 18 años, mayores de 65 años y/o jubilados y desempleados).

**Denda, CUBE-ARTIUM Jatexea / Tienda, Restaurante CUBE-ARTIUM**
**Aparkaleku publikoa / Parking público**
**Bisitaldi gidatuen zerbitzua / Servicio de visitas guiadas:** 945 20 90 10

Uztailaren 6tik irailaren 17ra
Del 6 de julio al 17 de septiembre

Artium
Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa
Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo

# INGURU HURBILAK 2006

# ENTORNOS PRÓXIMOS 2006

IPARRA ARETOA

Aurten bigarren aldiz egingo da Arabarekin edota Euskal Herriarekin loturaren bat duten 8 artisten lanak aurkezten dituen *Inguru Hurbilak* programa. Vitoria-Gasteizen testuinguru artistikoa indartzeko sortu zen gertaldi honetarako, gure inguruak eskaintzen dizkigun ehundaka irudietatik bakar batzuk aukeratu dira.

Héctor Orruño, Miriam Isasi, Ana Lezeta eta Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkum bikotea dira Arabako artistak, eta horien aldamenean, inguruetako beste lau artista daude: Karmelo Bermejo, Javier Soto, Zigor Barayazarra eta Fermín Jiménez nafarra. Guzti hauetako bakar batentzat ere ARTIUMetik igarotze honek ez du esan nahi xedea lortu duenik, ezta bide bat zehaztu duenik ere. Seguru asko, arrazoibide berrien sorrera zalantzekin eta sorkuntza-krisialdiekin txandakatuz joango dira. Eta hori da, hain zuzen ere, programa honen eginkizuna: proposamen arriskutsuei sendotzen laguntzea, topikoetatik eta lurralde ezagunetatik ihesi dabiltzan ahalegin haiek bultzatuz. Horiek baitira, hain zuzen ere, hemen ikusgai dauden lanak hautatzeko erabili diren irizpideak.

Itxura batera ez da beren proposamenei batasun bat ematen dien nolakotasunik ikusten. Hala ere, aretoaren itzulia eginda hemen sortzen ari den artearen ezaugarrietako bat izan litekeena hautematen da. Margolanak, bideoko dokumentazioa, argazkiak, lanen girotzeak eta instalazioak ikusita, badirudi guztietan objektuaren irudikapenari uko egin zaiola testuinguru zabalago batean kokatuz. Artelana erakusketan ikusgai baldin badago ere, errealitate berezi baten elementu bat bailitzen erakusten da.

Horrela **Héctor Orruño**-k bere margolanekin etorkizun hurbil batean kokatzen dituen espazio bitalak sortzen ditu, nanoteknologiara eta zientzia fikziozko komikietara eramandako estetika baten bidez, eta aldi berean, margoekiko, lantegiarekiko eta eskulanarekiko harreman zuzenari eusten dio.

Beste alde batetik, planteamendu kontzeptual berrien berrikusketa batek, gure erreferente kultural, politiko eta ekonomikoak ironikoki erabiltzeko aukera ematen diote **Karmelo Bermejo**ri eta horrek sentipen kontraesandunak sortzen ditu ikusleengan gaurko gaien inguruan.

**Ana Lezeta**-k berriz, bideoko pieza bat proposatzen du, erakusketako lan poetikoena. Irudiari traba egingo dion soinurik gabe, kaleidoskopio zorabiagarria sortzen du 7 antzezleren elkartze eta urruntzearen bidezko etengabeko mugimenduaren bidez. Bere lanak giza harremanen sentipen sarritan ziklikoak ekartzen dizkigu gogora.

Hala **Miriam Isasi**-ren nola **Javi Soto**-ren proposamenek espazio intimoak esploratzen dituzte. Bakoitzak bere mintzairaren bidez, osagai garratz eta begirunegabeak sartzen dituzte beren lanetan, elkorragoak Javiren kasuan eta introspektiboagoak Miriamenean. Bien esku-hartzeak kolorez aserik daude eta ikusle posibleentzako keinuz beterik.

Hizkuntza formalistago baten bidez, **Zigor Barayazarra**-k gizakiaren sozializazioa eta bizi den eremua ditu aipagai. Inguratzen gaituzten zeinuen, iragarki panelen nahiz seinaleen analisiaren bidez, beste erreferente natural batzuekiko konfrontazioak planteatuko ditu, poetikoki eta ironikoki.

**Fermín Jiménez**-ek gure eguneroko kezkak darabiltza bere lanean, marrazki, instalazio, argazki nahiz bideo bilakaturik. Artista multidiziplinarioa, ideiez josten du espazioa lotsarik gabe, bere lantegi edota bizileku bihurtuz. Jolasgura, kritikoa eta hezea, prozesua bere lanaren gidoia bilakatu da eta ikuspegi baikor bat erakusten du bere lan artistikoaren bidez.

**Iratxe Jaio**-k eta **Klaas van Gorkum**-ek osatutako taldearen proposamenarekin amaitzen da erakusketa. Instalazio batek, *Meanwhile, In the Living Room…*, aurretik izen berberarekin Holandan egindako ekintza batean sartzen gaitu. Arruntean irudiak elkarren gainean jartzeko erabili ohi den *chroma key* telebistako urdinak estalitako egongela baten irudikapenetik abiatuta, egile hauek bi munduren artean kokatzen gaituzte –erreala eta irudikatua–, giza jokabideen azterketa batean esanahiak batetik bestera eramanez.

Hau da, azken batean, abiatu besterik egin ez diren proiektu artistiko hauen indarrari eta konpromisoari ARTIUMek egiten dion aitorpena.



Ana Lezeta
***Izenik gabe / Sin título***, 2005

Iratxe Jaio y Klaas van Gorkum
***Meanwhile, In the Living Room…***, 2005



Karmelo Bermejo
***Aportación de fuel a la Costa Da Morte***, 2005



SALA NORTE

Este año se celebra la segunda edición del programa *Entornos Próximos*, en el que se presentan los trabajos de 8 artistas vinculados con Álava y el País Vasco.

El certamen, creado con la intención de fortalecer el contexto artístico en Vitoria-Gasteiz, recoge una de las cientos de propuestas posibles que nos procura nuestro contexto cultural.

Héctor Orruño, Miriam Isasi, Ana Lezeta y la pareja Iratxe Jaio y Klaas van Gorkum son los autores alaveses que se verán acompañados por 4 artistas de sus entornos: Karmelo Bermejo, Javier Soto, Zigor Barayazarra y el navarro Fermín Jiménez.

Su paso por ARTIUM es uno más en un camino en el que seguirán alternando la génesis de nuevos discursos con la duda, tentativas, pruebas, errores, correciones… Ahí es donde este programa pretende incidir: ayudando a consolidar las propuestas arriesgadas, potenciando aquellos esfuerzos por abandonar los lugares comunes y los territorios ya explorados. Al fin y al cabo, éstos también han sido los criterios para la selección de los trabajos aquí expuestos.

Aparentemente son trabajos dispares, surgidos de intereses distintos y con distintos lenguajes: pintura, instalaciones, esculturas, fotografías… Sin embargo, en un recorrido por la exposición se intuyen rasgos comunes que podrían constituir una de las peculiaridades de nuestro arte emergente.

Ya sean pintura, documentación en vídeo y fotografía, ambientaciones o instalación, cada uno de ellos parece haber renunciado a la presentación del objeto para pasar a estar integrado en un contexto más amplio: habitar el espacio. Las piezas se muestran como elemento de una realidad específica.

Así **Héctor Orruño** ha creado en sus pinturas espacios vitales que sitúa en un futuro próximo, con una estética trasladada de la nanotecnología y el cómic de ciencia ficción, sin renunciar a un contacto directo con la pintura, el taller y el trabajo manual.

Por su lado, una revisión de planteamientos conceptuales, permiten a **Karmelo Bermejo** tratar incisivamente nuestros referentes culturales, políticos y económicos, buscando un cierto conflicto sobre temas actuales. Todo ello se concreta en documentación fotográfica de las dichas acciones.

**Ana Lezeta** por su parte propone una pieza de vídeo en la obra más poética de la exposición. Sin sonido que perturbe la imagen, crea un caleidoscopio visual por medio del continuo movimiento de encuentros y desencuentros de 7 actores, y así remite a los sentimientos, muchas veces cíclicos, de las relaciones humanas.

Tanto la propuesta de **Miriam Isasi** como la de **Javi Soto** exploran espacios íntimos. Con diferentes lenguajes integran en su obra una carga ácida e irreverente, más árida en el caso de Javier e introspectiva en el de Miriam. Sus respectivas intervenciones apelan incisivamente y con estridencia a la atención del espectador.

A su vez, con un lenguaje más formalista, **Zigor Barayazarra** alude a la socialización del ser humano y a su inmersión en el espacio habitado. A través del análisis de los signos que nos rodean, vallas publicitarias o señales, plantea enfrentamientos, poética e irónicamente, con otros referentes naturales.

**Fermín Jiménez** utiliza en su obra aquellas preocupaciones que nos asaltan cotidianamente y que se convierten, en dibujos, instalaciones, fotografías o vídeos. Artista multidisciplinar, salpica de ideas el espacio de forma desinhibida, haciendo de él su taller u hogar. Lúdico, crítico y fresco, el proceso se convierte en guión de su trabajo, dejando traslucir una visión optimista en la práctica artística.

La exposición termina con la propuesta de la pareja formada por **Iratxe Jaio** y **Klaas van Gorkum.** La instalación *Meanwhile, In the Living Room…* recupera una acción previa realizada en Holanda bajo el mismo título. Partiendo de la reproducción de una sala de estar cubierta del televisivo azul *chroma key*, que habitualmente es empleado para superponer imágenes, sitúan al espectador entre dos mundos, el real y el representado, transfiriendo significaciones de uno a otro en la búsqueda de un estudio de los comportamientos sociales.